


ezagutzen al  
duzu Donostia?

# Txoritxulueta

S agues auzunetik abiatuko gara *Monpas* deituriko itsas mutur ezagunera. Mutur honen gaina bizkar luze bat da; bertan daude eraikuntza militar batzuen ez oso aspaldiko hondakinak. Ekarri dugun bidea, zoruaren ziurtasun eza eta sastrakengatik nahikoa zaila izan arren, egiteko modukoa da. *Monpasen* garelarik aurrera begiratzen badugu, segituan konturatuko gara ezin dugula aurrera jarraitu; gure aurrean amildegi izugarri bat ikusiko dugu. Harlasta handi baten gainean gaude, eta olatuak gure azpian lehertzen dira. *Txiñardi* deitzen da harlasta hau, olatuek aurrera jarraitzen dute *Kunbako zulu*an sartuaz. Aurrerago lehertzen dira, *Harlautz* deitzen diren harkaitzetan. Azken hauek pasata *Ataloi* deituriko harlastak daude. Aurrean dugun bista *Animetako* punta zorrotzean bukatzen da azkenik.

Aipatu ditugun paraje guzti horien gainera, erosi-



Monpaseko muturraren eskuinera, *Txiñardi* eta *Kunbako Zulu* daude.

natutako hare-harrizko «txo-txazko», donostiar petoen hiztegiaren harkaitzak zuloaz

beteak daude eta hauetan babesten dira kaiok, potto-rroak edo ubarroak eta beste

hainbat itsas-txori. Hortik dator gure arrantzaleek erabiltzen duten *Txoritxulueta* - eta ez *Txoritxuleta*!- izen polita paraje harrigarri honentzat.

Ekaitza denean, ikusgarria da paraje hauetan paseatzea. Olatuen aparrak eta kresalak *Txoritxulueta* guztia harrapatzen du eta mila-ka itsas-txorien txioak itsasoaren orroarekin batera entzuten dira.

ARGAZKIAK ETA TESTUA: JOSU TELLABIDE

## IKASBIDE IKASTOLA

AMARAKO ESKOLEN AINTZINDARIA



2-12 bitarteko irakaskuntza  
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta  
Derrigorrezkoaren Ondorengo Bigarren Hezkuntza  
auzoan bertan

Jose M<sup>a</sup> Salaberria 14 • Amara Berri • Tfnoa.: 46 72 94 - 46 78 41